


## Igartubeiti Baserri Museoa

# BASERRITARREN EKIMENAK KORONABIRUSAREN AURREAN



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputazioa Foru  
de Gipuzkoa



ETORBIZUNA ORAIN  
Es futuro

Egoera berezi honen aurrean Euskal Herriko bazter ezberdinetako baserritarrak irtenbide eta ekimen ezberdinak bilatzen ari dira beraien lanak aurrera atera eta herritarrei bertako elikagaiak eskaintzen jarraitzeko. Horregatik, Igartubeiti Baserri Museotik baserritarren lanari aitortza egin nahi diogu, aldiro aldiro gure webgunean beraien ekimenen berri emanez.

Osasun larrialdi honek mahai gainean jarri du gure egunerokoan nekazalgoak duen garrantzia.

Leiho birtual honen bitartez, aldizka, beraien ekimen, egitasmoen berri eman nahi izan duten Goierri eta Urola Garaiko baserritarrekin eta sektoreko bitartekariekin izandako solasaldiak argitaratuko ditugu.

- Arantza Madariaga



Arantza Madariaga, Elika Fundazioako zuzendaria da. Ekonomiaren Garapen eta Azpiegiturak Sailari atxikitakoa, eta EAEn nekazaritzako elikagaien segurtasun maila albat handiena izatea du helburu. Xede hori lortzeko, honako zerbitzu hauek garatzen ditu. Teknika eta zientzia aholkularitza eskaintzen die nekazaritza, elikagai, abeltzaintza, arrantza, kontsumo eta osasun arloko sail eskudunei. Lankidetzaz sustatzen du herri administrazioen, unibertsitate eta ikerketa zentron, ekoizpen sektoreen eta kontsumitzaile elkarten artean. Elikagaien kontsumoak eragin litzakeen arriskuekiko herritarren esposizioa balioetsi egiten du elika-kateko fase guztietan.

2020ko apirilak 23an, konfinamenduaren seigarren astean izandako solasaldia.

**Iban:** Kaixo Arantza

**Arantza:** Bai egun on!

**Iban:** Beno, zer moduz doaz egun hauek?

**Arantza:** Ba moldatuz. Etxetik lanean bideo konferentzia eta mila motatako bide ezberdinetatik hitz egiten jendearekin, eta ikasten ere bai.

**Iban:** Bai hori da. Ikasteko ere balio du.

**Arantza:** Bai. Gauza denetatik ikasten da zerbait. Ni gainera ez naiz izan oso aditua medio hauekin eta orain ikasten ari naiz, "master" bat egiten. Azkenean jende pila

Igartubeiti Baserri Museoa. Baserritarren ekimenak koronabirusaren aurrean egitasmoa. 2020

batekin gaude harremanetan eta bakoitzak sistema ezberdina duenez ba moldatu egin behar.

**Iban:** Izan ere, zu Erika Fundazioko zuzendaria eta kudeatzailea zara. Zer da Erika Fundazioa, zertan datza zuen lana?

**Arantza:** Erika elikagaien segurtasunerako fundazioa da, Euskadi mailan. Gure lana batez ere aholkularitza teknikoan eta zientifikoan oinarritzen da. Lehen sektoreari, aldundiei eta gobernuari zuzenduta dago. Eta orokorrean, ba gai honen inguruan diharduten agente guztiei. Eta esan bezala aholkularitza tekniko eta zientifikoan datza gure lana.

**Iban:** Izan ere, bizi dugun egoera honek, esan liteke elikaduraren auzia ere mahai gainean jarri duela besteak beste ezta?

**Arantza:** Elikagaiak ere lehentasuna dute eta sektore moduan garrantzitsua garela adierazi du bai. Eta hor ikusi dira indarrak eta ahuleziak ere bai noski. Nik pentsatzen dut momentu hau ere ona dela, beno ez da ona zeren krisialdi bat da. Baina esan nahi dudana da gauza onak ere atera daitezkeela eta ikusi beharko duguna da etorkizunera begira ze irakaspen ateratzen ditugun honetatik. Eta nik ikusten dut gauza asko ditugula hobetzeko. Baina aldi berean garrantzitsua da elikadura sistemaren auzia lehen mailan jarri dela. Hau oso garrantzitsua da eta orain "kontsekuenteak" izan behar dugu. Denok izan behar dugu arduratsuak.

**Iban:** Zein garrantzia du elikaduraren segurtasunak epidemia honetan eta gaixotasunaren transmisioan?

**Arantza:** Lehenik eta behin esan behar dena da birus hau ez dela elikagaien bidez transmititzen. Orduan ez da elikagaietatik eratorritako arrisku bat. Baina egia da aldi berean zerikusia duela, batez ere elikagaien industrian eta elikagaia bera nola tratatzen dugun eta hauen inguruko protokoloetan. Horregatik, momentu honetan jakin da elikagaiak lehen mailako garrantzia dutela, neurriak hartu behar dira egoera honi aurre egiteko. Baina berez, birus hau ez da elikagaien bidez transmititzen, eta beraz ez da "riesgo alimentario" esaten den hori. Osasun publikoko arazo bat daukagu eta beraz arlo askotan du eragina eta horien artean elikagaien segurtasunean, besteak beste.

**Iban:** Neurri edo protokolo zehatzik ezarri da lehen sektoreko ekoizleen eta elikagai industriaren alorrean?

**Arantza:** Bai, guk gobernu mailan protokolo batzuk martxan jarri genituen lehenengo momentutik, jakin da ba lehen sektoreak krisialdiaren baitan lehen mailako beharrak asetzeko lanean jarraitu beharko zuela. Protokolo hauekin neurriak hartu ziren arriskuak murrizteko, zeren "0 riesgo" ez dago inon, baina behintzat neurriak hartu lana ahalik eta ondoen burutu ahal izateko. Protokoloak bai elikagaien industrian eta baita merkatuetako kudeaketetan ere jarri genituen. Dena nola egokitu aztertu behar izan da, etxez-etxeko banaketaren inguruan ere nola egin beharko zen ikusi... Azkenean kontuan izanik egoera berri hau elikagaien segurtasuna bermatzea izan da helburua. Horretan gabilta lehenengo momentutik. Azkenean, ikusirik zer eragin eduki duen elikagaien eta orniduraren inguruan, gure lana izan da momentu honetan ere

elikagaien segurtasuna bermatzea. Eta ahal den neurrian denei laguntzea egoera egokitzen. Azkenean hau moldaketa dinamika bat izaten ari da, arlo guztietan.

**Iban:** Moldaketa prozesu honek nola eragin dio lehen sektoreari eta batez ere baserritarrei?

**Arantza:** Ba ematen den kasua da, esaten dutela oso garrantzitsuak garela lehenengo sektorekoak baina gero zuk aurrera segitu behar duzu zure aktibitatearekin neurri berri guzti horiek ongi ezarriz, segurtasuna eta konfidantza eman ahal izateko bezeroei kasu honetan. Eta nahiz eta zaila izan, sektorea nahiko ondo moldatu da. Pasa ditugu momentu hobeak edo txarragoak, zeren askotan egun batetik bestera albisteak aldatzen dira eta horretara ere moldatu egin behar duzu. Eta aldi berean kontuan izan behar dugu krisi hau ez dela soilik gure sektoreari eragiten diona, askoz ere krisi zabalagoa da. Eta orduan, guk egin behar duguna da gure neurrian, kasu honetan gure produktoreak beraien lanarekin jarraitzea kontuan izanik ez dela izango martxoaren 7a baino lehen egiten zena bezalakoa.

Eta hemendik aurrera ere gauzak ez dira berdinak izango eta horretara egokitu beharko gara, eta hau ezin da egin egun batetik bestera. Nik uste dut horretan dena kontuan izan behar dugula. Ez da soilik gure sektorean eragina duen krisia eta denok egin beharko dugu ahalegina moldatzeko. Gure sektorea nahiko ongi ari da moldatzen eta ekimen ugari jarri dira martxan, zeren azkenean gure sektorearentzako ostalaritza, jantoki kolektiboak eta tabernak eta antzerakoak itxita egoteak salmentari dagokionean kalte handia eragiten dio. Baina horren aurrean ikasi dugu etxerik etxe banaketak egiten eta denda txikiekin lan talde lanak osatzen elkar lana egiteko. Eta hau dena oso ona izango da etorkizunerako ere bai. Azkenean konfidantzazko beste erlazio batzuk ere sortzen dira. Baina beste alde batetik ere egia da, batzuentzat hau ez dela nahikoa. Eta horregatik ipini ziren martxan beste ekintza batzuk. Zeren gure produktuen artean badaude batzuk stock handiagoa dutenak eta hauentzat etxez-etxe banaketa ez da nahikoa. Eta orduan gobernutik martxan jarri zena izan zen ba soberakinei beste irteera bat edo komertzializazioa emateko beste bide batzuk ezartzea, batez ere kate haundien bitartez. Azkenean bezero asko dituzte eta saltzeko aukera ematen du. Baina beno, momentu honetan bide asko daude zabaldua. Batekin bakarrik ez da nahikoa eta beraz denen artean lortuko genduke, ez lehen zegoen egoera, baina behinbat aurrera egitea.

**Iban:** Orduan produktuak merkaturatzeko bide berriak bilatzea izan da lanetako bat?

**Arantza:** Bai. Izan ere guk lehenengo momentutik ikusi genuen, martxoak 7-8 egun horietan merkatu haundienak ixten hasi zirela eta ikusi genuen beste batzuek ere berdina egin zezaketela eta orduan hori dena nola kudeatu pentsatzen hasi ginen. Eta gero alarma egoera orokorra ezarri eta ostalaritzako komertzio guztiak itxi zirenean bide berriak behar genituela ikusi genuen. Egoera guzti hauei erantzuna eman ahal izateko. Gure produktoreen artean, inor ere ez da oso handia baina denen artean txikiagoak eta handiagoak daude. Eta azkenean asmoa hori izan da, denei irtenbide bat eman ahal izatea. Esate baterako arazo handia arkumeekin izan genuen. Arkume

garaia zen eta hauek gehien bat jatetxeetara edo elkarteetara eta bat-batean ohartu ginen arkume horiek nolabait saldu egin behar zirela zeren bestela mantendu egin beharko zirela. Eta beno, topatu zen irtenbide bat apur bat karga hori kentzeko artzainei ere. Ahalegin guztiak egin dira kalteak txikienak izan daitezzen. Hau esan da, badakigu kalteak egongo direla. Ez bakarrik gure sektorean, besteetan ere hemedik aurrera, esate baterako komertzioek eta ostalaritzak arazo handiak izango dituzte. Eta gure sektorean egin den indarra da ba irtenbide ezberdinak martxan jartzea kalteak txikienak izateko. Eta poliki poliki joango gara hemendik irteten.

**Iban:** Zein litzateke bertako produktuek eta ekoizleek duten garrantzia elikadura bermatzeko garaian osasun larrialdi honen baitan?

**Arantza:** Gu jada aspalditik gabilitza esanez bertako produktuak askoz jasangarriagoak eta osasangarriagoak direla beste edonondik datozenak baino. Eta hori da gobernu moduan landu dena eta lantzen ari dena. Eta momentu honetan horren garrantzia agerian geratu da ezta. Merkatuen itxiera agindu zenean pila bat jende mugitu zen sinadurak biltzeko eta bertako produktuak behar ditugula esanez. Niri gustatuko litzaidake hemendik aurrera ere hori ez ahaztea. Azkenean denok hain argi baldin badugu bertako produktuak beharrezkoak direla sektorearentzako eta gure osasunarentzako eta noski ingurugiroarentzako, hemendik aurrera ere hau dena kontuan izatea eskatzen dut. Horrelako irakaspenak argi baldin baditugu eta krisialdi honek horretarako balio baldin badu ederki. Beti atera behar dira gauza onak ere. Baina nik pentsatzen dudana da, ba argi eta garbi daukagula hori horrela dela, baina batzuetan “habito” batzuk ditugu eta jendearen ohitura horiek adatzea ez da hain erraza izaten, baina beno une honetan agian bai ari direla aldatzen. Eta ea hemendik aurrera ere bide horretan jarraitzen dugun horrelako gauzak kontuan izaten eta bertako produktuak kontsumitzen.

**Iban:** Amaitzeko. Nola ikusten duzu lehen sektorearen eta batez ere baserriarren etorkizuna honen ondoren?

**Arantza:** Nik uste dut honen ondoren dena aldatuko dela. Ez guk nahi bezain azkar baina gauza asko jarri dira mahai gainean eta jendeak beste kontzeptu batzuk barneratzen ari da. Eta honekin egon dira aldaketa batzuk. Nik ikusten dudana da, baiztetatu dela gure sektorean nahi izanez gero egokitzeko ahalmena dagoela, oraingo kasuetan ikusi den bezala beste komertzio bide batzuetara egokitzeko alegia. Zeren askotan oso ohituta eta eroso gaude modu batera lan egiten eta asko kostatzen da aldaketak egitea. Baina egoerak derrigortu gaitu beste aukera batzuk bilatzera. Eta sektorean argi daukagu egokitu egin beharko garela. Eta ekoizleek horretarako gaitasuna izatea oso garrantzitsua da, eta alde horretatik baikorra naiz.

Beste alde batetik, kontsumitzaileen aldetik alegia, pentsatu nahi dudana da bertako produktua baloratzen ikasi dugula eta ea irakaspen hau ez zaigun ahazten normaltasun bat lortzen dugunean. Bi gauza hauek ondo badoaz, bai ekoizleen egokitzapena eta baita kontsumitzaileen jarrera, elkarlana izango da oso garrantzitsua. Normalean gure ekoizleak oso txikiak dira eta hor elkarlana beharrezkoa izango da. Sortu dira gainera konfidantzazko erlazioak denda txikiekin eta online saltzeko sortu dituzten plataformak, etab. Edo denda handiekin ere berdin, zeren azkenean dena da beharrezkoa eta dena barneratu behar da.

Eta beno, gauza hauei jarraipena ematen badiegu eta argi ikusten badugu gure sektorearen garrantzia bai gizartearentzat, ekonomiarentzat edota ingurumenarentzat etorkizuna baikorra da. Eta horretarako denon arteko lana beharrezkoa izango da: ekoizleak, herritarrak eta nola ez instituzioak. Administrazio edo instituzioetatik laguntzen jarraitu behar dugu eta gure sektorearengan sinetsi behar dugu.

**Iban:** Mila esker gurekin hitz egiteko tartetxoa hartu duzulako eta egoera honi argi piska bat eskaintzeagatik.

**Arantza:** Eskerrik asko zuei.